

VIBEVEST

Gure proiektua "VibeVest" izeneko txaleko interaktibo bat garatzea da, non jokalaria benetako joko bizitzeko aukera izango duen, bereziki tiro-jokoetan. Txaleko honek teknologiaren bidez, jolastean jasotzen diren keinuak eta dinamika emozionalak transferitzea lortzen du, hala nola tiroak, kolpeak edo leherketak, erabiltzailearen gorputzean sentitzeko moduan. Gure produktuaren helburua da joko esperientzia murgilgarriago eta errealistagoa eskaintzea, jokalariei beren sentimenduak eta emozioak are gehiago indartuz.

Enpresaren helburua da gaming arloko berrikuntza eta teknologia aurreratua jendarteratzea, bereziki jolasteko esperientzia fisiko eta emozionala hobetzeko. Gure txalekoak, gailu mugikorren eta jolasen munduaren artean harreman zuzena eskaintzen du, eta horrela, gailu berri bat sortu nahi dugu, jokoak sentitzeko modua aldatu ahal izateko. Teknologia hau joko anitzetan aplikatu ahal izango da, eta horrek jokalarien murgiltze-sentsazioa handitzea bilatzen du, batez ere multiplayer edo VR jokoetan.

Azken finean, gure helburua ez da bakarrik produktua saltzea, baizik eta esperientzia integratu bat eskaintzea. Jokoaren munduan murgilduta egotea, jokoaren jatorrizko helburua eta emozioak bere benetako forman bizitzea bilatzen dugu. Gure produktuaren bidez, jokoaren mundua berrinterpretatzen ari gara, jokalarientzako errealitate berri bat sortuz, eta hala, mundu osoko gamers-en komunitatearekin konektatzea eta hobetzea nahi dugu.